



XXXXX-KO UDALAK ONDOKO GAIARI BURUZ EGINDAKO KONTSULTAREN GAINEKO IRIZPENA: XXXX OBRAK ETA XXXXX BERRIZTATZEA ETA IREKITZEA DIRELA ETA, XXXX-(e)K ESKATUTAKO INFORMAZIOARI BURUZKO IRIZPENA.

AURREKARIAK

LEHENENGOA: 2009ko abenduaren 17an XXXXXko alkate XXXXXren idazkia jaso genuen Datuak Babesteko Euskal Bulegoan. Idazkiarekin batera, Udal horretako Gobernu Batzordearen 2009ko XXXXXren X(e)ko erabakia jaso genuen.

BIGARRENA: Erabakian honakoa esaten da besteak beste:

“ ... 6.a.- XXXXXren idazkia.

XXXXX(e)k aurkeztutako idazkia ikusi dugu. Idazkian XXXXX obrak eta XXXXX berriztatzea eta irekitzea direla eta, XXXXX datuak eskatzen zituen. Hona hemen Gobernu Batzordeak hartutako erabakia:

1.- Hirigintza esparruko (obrak eta irekiera) lizentzien kopiak ematea.

2.- Datu ekonomikoak direla eta, ordea, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren irizpena eskatzea”.

Udalaren idazkiarekin batera, XXXXX(e)k Udalean aurkeztutako 2009ko XXXXXren X(e)ko datadun idazkiaren kopia ere aurkeztu zen.

HIRUGARRENA: XXXXX(e)ko XXXXXren X(e)an Datuak Babesteko Euskal Bulegoak idazki bat bidali zion Udalari kontsultei buruzko zenbait alderdi argitzeko eskatuz.

LAUGARRENA: XXXXX(e)ko XXXXXren X(e)an XXXXXko Udalak bidalitako idazki bat jaso genuen Datuak Babesteko Euskal Bulegoan. Idazkian honakoa adierazi zuen Udalak, besteak beste:

“... gure ustez, eskatu diguten informazio ekonomikoa Udal honek, XXXXXX emandako lizentziei dagokien eraikuntza, instalazio eta obren tasen eta zergen ordainketei buruzkoa da”.

BOSGARRENA: Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1



artikuluko n) letrak honako eginkizuna esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

“Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea.”

Beraz, goiko arau hori kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko txostena egitea.

KONTUAN HARTZEKOAK

I

1978ko Konstituzioak oinarrizko hainbat eskubide aitortzen ditu lehendabiziko tituluan, eta eskubide horiek direla eta, 18.4 artikulua honakoa xedatzen du:

“Legeak informatikaren erabilera mugatuko duela, herritarren ohorea, eta norberaren nahiz senitartekoen bizitza pribatua, eta horien guztien eskubideen egikaritza osoa bermatzeko.”

Konstituzioaren agindu hori da datu pertsonalak babesteko eskubidearen edo autodeterminazio informatiborako eskubidearen jatorria, eta jurisprudentzia konstituzionalak ere oinarrizko eskubidearen eta eskubide autonomoaren izaera aitortu dizkio. Gainera, doktrinaren bat edo bestek XXI. mendeko oinarrizko eskubide berria dela ere esan du.

Konstituzio Auzitegiak (KE) adierazi du 18.4 artikulua, 254/1993 KAEk xedatzen duenaren arabera, honako izaera duela:

“Intimitate eta ohore eskubideak bermatzeaz gain, herritarrek gainontzeko eskubideez ere erabat gozatu dezaten bermatzen duen estatutu izaera duela, eta aldi berean oinarrizko eskubide bat edo askatasun bat ere badela, hau da, tratamendu mekanizatuen (Konstituzioak “informatika” esaten dio) ez-legezko erabilerek pertsonen askatasunaren edo duintasunaren aurka egin ditzaketen erasoan aurrean pertsonok dugun askatasunerako eskubidea ere badela. “Informatika askatasuna” ere esan izan zaio (6. gogoeta. Geroago, honako epaiek berretsi egin zuten: 143/1994, 11/1998, 94/1998 eta 202/1999 KAren epaiek).”

Datu pertsonalak babesteari buruzko oinarrizko eskubidearen kontzeptuaren esparrua intimitaterako eskubidearen kontzeptuak harrapatzen duena baino zabalagoa da. Konstituzio Auzitegiak ere horixe adierazi zuen 292/2000 KAEn.

Datu-babeserako oinarrizko eskubidea ez da bakar-bakarrik pertsonaren datu intimoetara mugatzen, baizik eta edozein motatako datu pertsonaletara, intimoa izan ala ez, kontuan izanik, hirugarrenek horien berri izanez gero edo horiek erabiliz gero, datuen jabearen eskubideei kalte egin diezaieketela, oinarrizko



eskubideak izan ala ez, bere helburua ez delako bakar-bakarrik norbanakoaren intimitatea, norbanakoen intimitatea babesteko Konstituzioaren 18.1 artikulua baitago, baizik eta datu pertsonalen babesa. Ondorioz, datu pertsonal publikoak ere harrapatzen ditu; izan ere, edonork eskuratzeko modukoak badira ere, ukituak baino ez du haietaz baliatzeko ahalmena, ukituak datu babeserako duen eskubideak horrela izan dadin bermatzen duelako. Horregatik hain zuzen ere, datuak pertsonalak direlako, pertsonaren bizitza pribatuari edo intimoari buruzko datuez gain, pertsona identifikatzen duten edo identifikagarri egiten duten datu guztiak daude babestuta, hau da, pertsonaren arraza, profil ideologikoa, sexuala, ekonomikoa edo beste edozein profil osatzeko balio duten datuak edo egoera jakin batzuetan norbanakoentzat kaltegarriak izan daitezkeen bestelako helburuetarako erabilgarriak izan daitezkeen datuak” (6. gogoeta juridikoa).

290/2000 KAEn oinarrizko eskubide honen edukia ere zehaztu du Konstituzio Auzitegiak. Hona hemen:

“Datu pertsonalak babesteko eskubidea izateak norberaren datu pertsonalen gaineko boterea izatea eta datu horien gainean erabakiak hartzeko gaitasuna izatea dakar, eta gaitasun horrek ahalmena ematen dio pertsonari honakoak erabakitzeko: ea datu horietatik zeintzuk eman nahi dizkion hirugarren bati, dela Estatuak dela partikular bat, eta ea hirugarren horrek datu horietatik zeintzuk bildu ditzakeen; horrez gain, ahalmena ematen dio jakiteko ea datu pertsonal horiek nork dauzkan eta zertarako, eta bere datu pertsonalak inork edukitzearen edo inork erabiltzearen aurka agertzeko ahalmena ere ematen dio. Norberaren datu pertsonalak kontrolatzeko eta horien gaineko erabakiak hartzeko boterea datu babeserako oinarrizko zuzenbidearen edukiaren zati bat da eta botere hori honako gaitasun hauek gauzatzen dute juridikoki: datu pertsonalak biltzeko, eskuratzeko eta atzitzeko adostasuna adierazteko gaitasunak, geroago datu horiekin egiten diren biltegiatzeen eta tratamenduen gaineko adostasuna adierazteko gaitasunak eta hirugarren batek, dela Estatuak dela partikular batek, datu horiekin egin dezakeen edo ditzakeen erabileraren edo erabileren gaineko adostasuna adierazteko gaitasunak. Eta inork datu pertsonalak jakin ditzan eta datuen tratamendu informatikoa ala tratamendu ez informatikoa egin dezan baimentzeko gaitasunak ezinbestean behar ditu honako osagarriak: batetik, datu pertsonalak non dauden, nork dauzkan eta zertarako erabiltzen dituen uneoro jakiteko gaitasuna eta, bestetik, datuak hirugarrenek edukitzearen eta datu horiek erabiltzearen aurka egiteko gaitasuna (...)” (7. gogoeta juridikoa).

Beraz, Konstituzio Auzitegiaren ustez, osagai horiek dira datu pertsonalak babesteko eskubidearen definizioaren ezaugarriarik esanguratsuenak. Bestalde, oinarrizko eskubide hori gaur egun Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 2/2004 15/1999 Lege Organikoak (DBLO) arautzen du. Eta horretaz gain, komunitate erkidego honetan beste lege honek osatzen du eskubidea: Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legea.



II

Aztertzen ari garen kasuan, XXXXXko Udalak honakoa erabaki du: *“Datu ekonomikoak direla eta, ordea, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren irizpena eskatzea”*.

Eskabideari dagokionez, hasteko, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak adierazi nahi du kontsulta-egileari eskatu ziola argitzeko ea zein datu ekonomiko ziren kontsultan aipatzen zituenak eta ea datu horiek pertsona fisikoei ala juridikoei buruzkoak ziren.

Udalak honako informazioa bidali zigun Bulegora:

“... Udal honek XXXXX ireki duenez, gure ustez, eskatu diguten informazio ekonomikoa XXXXXri emandako lizentziei dagokien eraikuntza, instalazio eta obren tasen eta zergen ordainketei buruzkoa da”.

Beraz, Bulegoari dagokionez, argitu behar dena da ea Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak (aurrerantzean DBLO) pertsona juridikoei buruzko datuak babesten dituen. Beste era batera esanda, ea pertsona juridikoei ezarri ahal zaien Lege hori.

DBLOren 1. artikulua xedatutakoa gogoraraziz hasiko gara:

*“Lege organiko honen xedea da, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez, **pertsona fisikoen** askatasun publikoak eta oinarrizko eskubideak bermatu eta babestea, eta, batez ere, norberaren zein familiaren ohorea eta intimitatea”*.

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa garatzen duen erregelamendua onartzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuaren 2.2 artikulua ere honakoa xedatzen du bere ezarpen-eremuaren gainean:

*“**Erregelamendu hau ez da aplikatuko pertsona juridikoei buruzko datuak dituzten tratamenduekin**, ez eta pertsona juridiko horientzat lan egiten duten pertsona fisikoen datuak baino jasotzen ez dituzten fitxategiekin, baldin eta pertsona fisiko horiei buruzko datuak izen abizenak, betetzen duten lanpostua, posta helbidea edo posta elektronikoa, eta laneko telefono-zenbakia eta faxa badira”*.

Hori gutxi balitz, hona hemen DBLOren 3. artikulua xedatzen duena:

“a) Datu pertsonalak: Identifikatutako edo identifikagarriak diren pertsona fisikoen gaineko edozein informazio”.

Legea garatzen duen Erregelamenduaren 5.1 artikulua honako dio bertako aurreikuspenen ondorioak direla-eta:

“...f) Datu pertsonalak: pertsona fisiko identifikatu edo identifikagarriei buruzko edozein informazio (zenbakizkoa, alfabetikoa, grafikoa, fotografikoa, akustikoa edo beste edozein motatakoa)”.

Euskal Autonomia Erkidegoko Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004



Legeak ere xedatzen du datu pertsonala *“identifikatutako edo identifikagarriak diren **pertsona fisikoen** gaineko edozein informazio”* dela.

Beraz, datu bat datu pertsonala izateko eta DBLOren babespean egoteko, datu horrek **pertsona fisiko** bati buruzkoa izan beharko du nahitaez.

Aurrekoa ikusita, eta doktrinak eta jurisprudentziak aho batez esaten duenez, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak ematen duen babesak ez du balio pertsona juridikoentzat. Pertsona juridikoek ezin dute legean ezarritako bermeez gozatu eta DBLOren babespetik kanpo daude.

Beraz, pertsona juridikoak DBLOren ezarpen-eremutik kanpo daudenez, horiei buruzko datuak lagatzea ez dago datu babesaren arloko araudiak ezarritakoaren aurka.

ONDORIOA

LEHENENGOA.- Pertsona juridikoei buruzko datuak ez dira datu pertsonalak; beraz, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Lege Organiko ez ditu babesten, ezta legea garatzen duen araudiak ere.

Datu horiek lagaz gero, ez litzateke datu pertsonalak babesteari buruzko araudia urratuko.

Vitoria-Gasteizen, 2010eko otsailaren 23an